

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



PALESTINAKO HEALTH WORK COMMITTEES (HWC) OSASUN- ERAKUNDEKO PROIEKTUEN KOORDINATZAILE JUANA RUIZ SANCHEZ-EN ATXILOKETARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE LA DETENCIÓN DE JUANA RUIZ SÁNCHEZ, COORDINADORA DE PROYECTOS DE LA ORGANIZACIÓN SANITARIA PALESTINA HELTH WORK COMMITTEES (HWC)

Health Work Committees (HWC) Palestinako gobernuz kanpoko osasun-erakunde bat da, 1985ean sortua, oinarrikoa eta irabazi asmorik gabea. Egiten duen lanak oinarritzko helburu bat du, zeina den Palestinako osasun-egoera hobetzen laguntzea, lehen eta bigarren mailako zerbitzu diagnostikoak eta terapeutikoak emanaz eta, horrez gain, komunitatean oinarritutako programak gauzatuz.

Juana Ruiz Sanchez-ek 35 urte daramatza Palestinan bizitzen, eta HWCKo proiektuen koordinatzailea da. Apirilaren 13an Israelek atxilotu eta espetxeratu egin zuen inolako kargu zehatzik gabe. Juana Ruizek eginiko lana, nagusiki, Palestinako herritar behartsuenei osasun-eskubidea bermatzeko elkartasunezko zereginak izan dira, azpimarra emakume zein haurren osasun-prebentzioan jarritz, bai eta haurren txertaketan ere.

Helth Work Committees (HWC), es una organización palestina, no gubernamental, de salud, de base y sin fines de lucro, establecida en 1985. Su trabajo se basa en un objetivo fundamental que es contribuir a mejorar la situación sanitaria en Palestina a través de la prestación de servicios de diagnóstico y terapéuticos primarios y secundarios, además de la implementación de programas basados en la comunidad.

El pasado día 13 de abril Israel detenía y encarcelaba sin ningún tipo de cargo concreto a Juana Ruiz Sánchez, residente en Palestina desde hace más de 35 años, y Coordinadora de Proyectos de HWC. Su trabajo se ha centrado en tareas solidarias para garantizar el derecho a la salud de la población palestina más desfavorecida, incidiendo en la prevención sanitaria de mujeres y niños, así como en la vacunación infantil.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



Atxiloketa goizaldean izan zen, hogeitik gora soldadu israeldar oldartu zitzaizkion etxean, Zirjordaniako Beith Sahur herrian, aitzakia bakar galdeketa bat egitea zutela. HWCko beste bi pertsona ere atxilo administratiboak dira une honetan: Tayseer Abu Sharbak eta Saeed Abbad, kontabilitate-saileko oraingo eta lehengo arduradunak.

Halaber, martxoaren 8an, Israelgo armada indarrez sartu zen HWCren bulego nagusian, eta kontabilitate-saileko agiriak eta material informatikoa eraman zituen. Horrek guztiak susmo bat dakargu: Israel saiatzen ari dela HWCK egiten dituen proiektuen finantzaketarekin lotutako delituren bat frogatzen, eta Juana Ruiz nahiz bi lankideak akusazio horren barruan sartzen.

Nabarmendu beharra dago kargurik gabe dituztela atxilo Juana Ruiz eta bi lankideak, eta hori egitea ohikoa dela agintari israeldarrengan, nahiz eta nazioarteko zuzenbidearen aurkakoa izan. Hain zuzen ere, nazioarteko zuzenbidearen aurkakoa dela salatu dute giza eskubideen hainbat nazioarteko erakundek, besteak beste NBEko errelatore bereziek, zehazki torturari eta beste tratu zein zigor krudel, anker edo umiliagarriei buruzko errelatoreak eta Palestinako okupatutako lurraldeetako giza eskubideen egoerari buruzko errelatoreak.

Su detención se produjo de madrugada, cuando más de 20 soldados israelíes asaltaron su domicilio en la localidad cisjordana de Beith Sahur, con la única excusa de llevar a cabo un interrogatorio. Igualmente, otras dos personas de HWC, Tayseer Abu Sharbak y Saeed Abbad, responsables actual y anterior respectivamente del departamento de contabilidad, permanecen en detención administrativa.

Asimismo, el pasado 8 de marzo, el ejército israelí allanó la oficina central de HWC y se llevó material informático y documentación del departamento de contabilidad. Todo esto hace sospechar que Israel está intentando demostrar algún tipo de delito vinculado con la financiación de los proyectos que realiza HWC y que pretenden involucrar a Juana Ruiz y a sus dos compañeros en esa acusación.

Es imprescindible destacar que Juana Ruiz y sus compañeros están siendo detenidos sin cargos, práctica habitual de las autoridades israelíes que contraviene el derecho internacional, y como tal ha sido denunciado por los Relatores Especiales de la ONU (entre otras instituciones internacionales de derechos humanos), sobre la tortura y otros tratos a castigos crueles inhumanos o degradantes, y sobre la situación de los derechos humanos en el Territorio Palestino ocupado.

ADIERAZPEN INSTITUZIONAL DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



Israelek egin ditu atxiloteta horiek, eta noren aurka egin ditu? Zisjordanian Israel potentzia okupatzailea denez Israelgo agintariak osasunerako sarbidea bermatzeko duten ardura hartzeari uko egin diotelako osasun-prebentzioan eta osasun-arretan urtetan jarduerak egin dituztenen aurka.

Halaber, gertaera hauekin jarraipena ematen zaio alor humanitarioan eta palestinarren eskubideen defentsan lanean dabilenaren kontrako jazarpenari.

Juana Ruiz kargurik gabe atxilotuz eginiko urraketa larria denez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek honako Adierazpen Instituzional hau onetsi dute:

- Gipuzkoako Batzar Nagusiek adierazten dute Israelgo armadak Health Work Committees (HWC) osasun-erakunde palestinarreko Juana Ruiz Sanchez bai eta Tayseer Abu Sharbak zein Saeed Abbad lankideak ere kargurik gabe atxilotzeak urratu egiten dituela eskubide zibil eta politikoen errespetuaren aldeko nazioarteko gutxieneko arauak.

Esta detención llevada a cabo por parte de Israel se produce contra quien durante años ha desarrollado actividades de prevención y atención sanitaria en Cisjordania ante la negativa de las autoridades israelíes de asumir su responsabilidad de garantizar el acceso a la salud como potencia ocupante que es.

Asimismo, supone continuar con la persecución contra quien trabaja en el ámbito humanitario y de defensa de los derechos de la población palestina.

Dada la grave vulneración cometida contra Juana Ruiz al ser detenida sin cargo alguno, las Juntas Generales de Gipuzkoa aprueban lo siguiente:

- Las Juntas Generales de Gipuzkoa manifiestan que la detención por parte del ejército israelí sin cargos de Juana Ruiz Sánchez y sus de compañeros Tayseer Abu Sharbak y Saeed Abbad de la organización sanitaria palestina Helth Work Committees (HWC), vulnera las mínimas normas internacionales de respeto por los derechos civiles y políticos.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, Estatuko Gobernuari eta Europar Batasunari eskatzen diete formalki eta presaz galdatzeko Israelgo agintariei Juana Ruiz Sanchez eta Tayseer Abu Sharbak zein Saeed Abbad lankideak aska ditzaten, haien eskubide zibil eta politikoak berma daitezen.
- Las Juntas Generales de Gipuzkoa instan a la Diputación Foral, al Gobierno Vasco, al Gobierno de Estado y a la Unión Europea a solicitar formalmente y de manera urgente a las autoridades de Israel la liberación de Juana Ruiz Sánchez y la de sus otros dos compañeros, Tayseer Abu Sharbak y Saeed Abbad, de manera que se garanticen sus derechos civiles y políticos.

Donostian, 2021eko maiatzaren 27an